

EGILEA

Begoña Oro

IRUDIGILEA

Alejandro Villén

GAIAK

Umorea. Familia. Kulturartekotasuna. Historiaurrea. Literatura eta liburuak. Animaliak. Poza eta baikortasuna. Kontsumorako hezkuntza. Irudimena eta sormena

GAITASUNAK

Kontzientzia eta adierazpide kulturaletarako gaitasuna. Gaitasun pertsonala, soziala eta ikasten ikastekoa. STEM

BESTE ARLOEKIKO LOTURA

Arte-hezkuntza (Plastika)

ORRIALDE-KOP.: 56



# A zer desastreak, Troti

*Konponbide bat «desastroti» bakoitzerako*

## ZERGATIK IRAKURRI LIBURU HAU?

Istorio erraza, dibertigarria eta polita delako, denboraren zuloan erori eta gaur egungo munduan agertzen den historiaurreko familia bati buruzkoa, hain zuzen. Gaur egungo errealitatea ezbaian jartzen duelako, dituen onurak eta eragozpenak kontuan hartuta, eta gure inguruneaz jabetzen laguntzen digulako. Troti, irakurleek maite-maitea izango duten siberiar adarbakar atsegina, protagonista duen bildumari hasiera ematen diolako.

## ARGUMENTUAREN LABURPENA

Troti Historiaurreko animalia bat da, baina, Mug familiarekin batera, XXI. mendean agertu da. Despistatu samarra den arren, bere «desastrotiak» ia beti konpondu daitezke. Miak, Trotiren lagun eta bizilagunak, desastre bat eragotzi berri du; aitonaren betaurrekoak salbatu ditu. Uma amonak betaurrekoak jantzi dituenean, ondo ikusten duela ohartu da, eta ipuinak irakurri dizkie guztiei... Eta noski! Trotik oso gustuko ditu «azal arteko istorioak»!

## NORENTZAT DA LIBURU HAU?

Irakurtzen hasi berri direnentzat, kaligrafiarekin trebatzen ari direnentzat, bereziki. Horrez gain, Historiaurrea, animaliak eta umorea gustuko dituen edonork irakur dezake.

## JARDUERA-PROPOSAMENA

### BAKARKA

Eskatu ikasleei istorio honetako protagonista guztiak deskribatzeko (*Troti, Uma, Pop, Uri eta Mia*), hitz bakarra erabiliz.

### BIKOTEAK

Esan ikasleei, binaka jarrita, zerrenda bat osatzeko **bizitza moderno** honetan Troti eta mugtarrak gehien harritzen dituzten gauzekin.

### TALDEA

Antolatu ikastaldea talde txikitik, eta esan istorioari edo pertsonaiei buruzko bizpahiru galdera prestatzeko. Gero, bildu galdera guztiak, eta irakurri ozen, ikasleek, taldeka eta jolas moduan, erantzun ditzaten; eskua azkarren altxatzen duen taldeak erantzungo dio galderari. Horrela, zure ikasleek bilduma honen **gako nagusiak** barneratu ahal izango dituzte, eta sail honetako beste liburuak irakurtzeko prestatuko dira.

### ARTE-HEZKUNTZA (PLASTIKA)

**Irudiak interpretatzeko** gaitasuna garatzeko, eskatu ikasleei, denen artean, beste istorio bat asmatzeko, liburuko ilustrazioei soilik erreparatuta. Horretarako, ikasleek, banan-banan, esaldi bana asmatuko dute, irudi bakoitzaren ondoan jartzeko, eta, horrela, nahi bezain narrazio irudimentsu edo zentzugabea osatuko dute. Jarduera amaitzeko, adierazi zein garrantzitsuak diren ilustrazioak ipuinetan (*istorioa osatzeko, istorioa ulertzen laguntzeko, irudimena lantzeko, testua biribiltzeko, umore-ukitu bat emateko, etab.*).



## IDAZKETA-TAILERRA

Amona Umak oso gustuko ditu bizitza modernoko asmakizunak. Proposatu ikasleei, irudimena eta sormena erabiliz, **asmakizun berri** bat deskribatzeko (gaur egun existitzen ez den zerbait); azaldu deza-tela zertarako balio duen eta zer izen jarriko dioten.